

## **2006-02-21ko EZOHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta sei urteko otsailaren hogeita batean, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko Udalbatza Aretoan, ezohiko batzarra egin zuen Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru zuela.

Eugenio Loidi Garmendia, Jose Luis Olano Zubeldia eta Gregorio Lasa Etxezarreta zinegotziak izan ziren bileran.

Udaleko idazkariak –Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak– egin zituen idazkari-lanak.

Alkateak bilkura publikoa ireki zuen; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi zuen bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baitzen.

### **GAI BAKARRA**

**ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, KONTRATUA ETETZEA, SOHERCON S.A.REKIN UDALAK ZUENA, FRONTOIA IXTEKO OBRA BURUTZEKO.**

Alkatetzak honako **AKORDIO PROPOSAMENA aurkeztu du:**”Udalbatzak 2005eko apirilaren 5ean erabaki zuen frontoia ixteko obrak Sohercón S.A. enpresari esleitzea.

Kontuan izanda obrak burutzeko epea bi hilabetekoa zela eta hasteko data 2005eko maiatzaren 25a, uztailearen 25ean amaitu beharko zituzten obrak.

Gaurko egunez eta obraren zuzendaritzak 2006ko urtarrilaren 10ean egindako txostena ikusita, obra bukatuta egotetik oso urrun dago.

2006ko urtarrilaren 31ko 9 zenbakia duen Alkate-dekretuaren bidez, Udal honek Sohercon S.A. enpresarekin hitzarmenaren ebazpen espedientea hasi zuen, Irurako frontoia ixteko obrak burutzeko. Era berean, kontratistari eta abal-emaileari entzuteko 10 eguneko aukera eman zitzairen, 2006-02-09tik 2006-02-18ra, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

Txosten tekniko eta juridiko egokiak ikusi ditut.

Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege-dekretuz onartutako Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen testu bateginaren 95 eta 111 artikuluetan eta beraiekin lotutako gainerakoetan ezarritakoaren arabera, honako akordioa onartzea proposatzen da:

### **AKORDIOA**

Lehena.- Irurako frontoia ixteko obrak burutzeko Sohercon S.A. enpresarekin egindako kontratua suntsitzea.

Era berean, jarritako behin betiko bermea, 4.019,87 eurokoa, jasotzea abal moduan; Elkargi da abal-emailea.

Bigarrena.- Obraren lanean benetan hasia eta proiektuaren arabera egindako obrak aztertzea, neurtzea eta likidatzea.

Horretarako, kontratista eta obra-zuzendaritza deituko ditugu otsailaren 28rako, eguerdiko 12:00etarako, obrak egiten ari diren lekuan.

Hirugarrena.- Udalak obrak jarraitzea enpresaburu partikularren laguntzarekin.

Laugarrena.- Obrak atzeratzeagatik jarritako zigorrak likidatzea. Zigorren behin betiko kopurua zertifikazioetatik deskontatuko da, eta hauetatik egin ezin denean, behin betiko bermetik deskontatuko da. Hau nahikoa ez balitz, diru hori premiamendu-bidea hartuta jasoko da.

Bosgarrena.- Dena dela, kontratistak obraren akatsen ardura izango du, kontratuaren suntsitze hau egiten denetik urtea bete arte, Baldintza Pleguetan ezarritako garantialdia betetzeagatik.

Hala badagokio, dagokion espedientea ere irekiko da udal honi eragindako kalte-galeren ardurak argitzeko

Seigarrena.- Alkatetzaren esku uztea akordio hau garatzea eta bukaeraraino betetzea. Eskumen horien artean egongo da jar daitezkeen errekurtsioak ebaztea.

Zazpigarrena.- Akordio hau jakinaraztea, besteak beste, obra zuzendaritzari eta entitate abal-emaileari.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.”

Hori dela eta, udalbatzak onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aztertzeke beste gairik ez zegoenez, 21:00etan amaitu zen bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN du.